

Pribatuen Iragarkiak

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA EEE

1580

IRAGARKIA, Energia eta Meatzaritza arloko programa biren oinarriari buruzkoa.

PROGRAMA: 2005, ENERGIA-BALIABIDE
BERRIZTAGARRIEN USTIAPENA.

BALDINTZA OROKORRAK

1.- Helburua.

Euskal Autonomia Erkidegoan energia berriztagarriak ustiatzeko instalazio txikiak sustatzea da deialdiaren helburua.

Zehatzago esanda, honako instalazio-mota hauek:

– Ur bero sanitarioa (ACS) ekoizteko eta igerilekuak klimatizatu eta berotzeko eguzki-instalazio termikoak, estalkidun edo huts-hodidun kolektore zapalak dituztenak, baldin eta kolektorearen azalera erabilgarria 50 metro koadro artekoa bada.

– Sare elektrikotik bereizitako eguzki-instalazio fotovoltaiakoak, baldin eta eguzki-eremua 6 kWp artekoa bada.

– Sare elektrikoari konektatutako eguzki-instalazio fotovoltaiakoak, baldin eta inbertitzailearen edo inbertitzaile guztien izendatutako potentzia 5 kW artekoa bada. Programa honetan instalazioaren eguzki-eremuaren lehen 6 kWp diruz lagunduko dira.

– Aerosorgailuak edo sorgailu eolikoak, 10 kW baino potentzia gutxiagokoak.

– Mikrozentral hidroelektrikoak, 10 kW baino potentzia gutxiagokoak.

– Biomasa ustiatzeko zentralak, baldin eta ACSren banaketa edo sorkuntza eta/edo berokuntza-sistema hidraulikora konektatuta badaude, eta 50 kW baino gutxiagoko potentzia baliagarria badute.

– Energia berriztagarriko beste instalazio batzuk eta egitasmo bereziak.

Instalazioak Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan hedatzeko asmoz, eta bidez batez, programa honi emandako baliabideak edo laguntzak gizartean hobeto zabaltzeko, programa honetan konexio edo/eta kokagune bakoitzeko sarera konektatutako eguzki-instalazio fotovoltaiako bati baino ez zaio lagunduko. Konkurrentziarik izanez gero, programara aurkeztutako egitasmoen hurrenkera edo ordena lehenetsiko da, eta bi

Anuncios Particulares

ENTE VASCO DE LA ENERGÍA EVE

1580

ANUNCIO de las bases de dos programas del Área de la Energía y la Minería.

PROGRAMA: APROVECHAMIENTO DE RECURSOS
ENERGÉTICOS RENOVABLES 2005.

CONDICIONES GENERALES

1.- Objeto.

La presente convocatoria tiene por objeto promover la realización de pequeñas instalaciones de aprovechamiento de energías renovables, ubicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Más concretamente, los siguientes tipos:

– Instalaciones solares térmicas con colectores planos con cubierta o tubos de vacío para producción de ACS, climatización y calentamiento de piscinas, de hasta 50 m² de superficie útil de colector;

– Instalaciones solares fotovoltaicas aisladas de la red eléctrica de hasta 6 kWp de campo solar;

– Instalaciones solares fotovoltaicas conectadas a la red eléctrica de hasta 5 kW de potencia nominal del inversor o suma de inversores, considerándose a efectos de las ayudas del presente programa los primeros 6 kWp del campo solar de la instalación;

– Generadores eólicos de potencia inferior a 10 kW;

– Microcentrales hidroeléctricas de potencia inferior a 10 kW;

– Instalaciones de aprovechamiento de la biomasa, siempre que estén conectadas al sistema hidráulico de generación y distribución de ACS y/o calefacción, de potencia inferior a 50 kW térmicos útiles.

– Instalaciones de otras energías renovables y proyectos singulares.

Con objeto de favorecer la dispersión de las instalaciones por toda la geografía de la Comunidad Autónoma Vasca, y lograr así una mayor repercusión social de los recursos destinados al presente programa, sólo se apoyará una instalación solar fotovoltaica conectada a red por cada emplazamiento y/o por cada punto de conexión, siendo el orden de llegada elemento discriminador en caso de concurrencia, y quedando a criterio del

edo instalazio gehiago badira leku berean, EEEren irizpidearen arabera erabakiko da.

2.– Onuradunak.

Honako hauek izan daitezke deialdi honek arautzen dituen diru-laguntzen onuradun: Euskal Autonomia Erkidegoan dauden edo erkidego honetan jarduteko ahalmena duten pertsona fisikoak edo juridikoak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, toki-korporazioak, jabe-kideen komunitateak eta aurrekoen antzeko beste edozein erakunde.

3.– Laguntzaren zenbatekoa eta laguntza zehazteko irizpideak.

Laguntza hauek itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izango dira, eta kostu aukeragarriaren %40 lagunduko da diruz.

Kostu aukeragarritzat honako hau hartuko da: energia berriztagarriak ustiatzeko instalazioei egotz dakiekeen ibilgetu materialean egindako inbertsioa, instalazioaren funtzionamendurako beharrezkoa dena eta berriztagarriak ez diren beste teknologia batzuk erabiliz justifikatu ezin dena. Ondorengo alor hauetan egindako gastuak ez dira kontuan hartuko: obra zibilean, finantzan, zergetan, baimenetan, kudeaketan eta antzekoetan. Eztabaida edo zalantzarik balego, EEEren irizpidea hartuko da aintzat.

Diru-laguntza eman eta laguntzen zenbatekoa zehazteko, honako irizpideak eta ehunekoak erabiliko dira:

– Teknologia berrikuntza	%30
– Aplikazioaren berezitasuna	%30
– Proiektuaren gizarte-interesa	%30
– Aurrekoen antzeko beste faktore batzuk	%10
Guztira:	%100

Laguntza hauek bateragarriak dira proposamen-egileei aplikatu ahal zaizkien bestelako laguntza instituzionalekin. Hala ere, badute muga bat, hau da, energiarekin zerikusia duten laguntzak pilatuz gero, laguntza horiek ezin izango dute diruz lagundu daitekeen kostearen %51 gaintitu, irabazi-asmoa duten jarduerak direnean, eta kostearen %100, gainerakoetan.

Instalazio bakar batentzako gehienez ere 36.000 euroko laguntza eman ahal izango da eta onuradun berak gehienez ere 60.000 euroko laguntza jaso ahal izango du. Bestalde, bi sozietate onuradun bera eta bakarra dela esango da, baldin eta pertsona fisiko edo juridiko berak sozietateen kapitalaren %25 edo gehiagoko parte badu, edo baldin eta batak bestearen kapitalaren %25 edo gehiagoko parte hartzen badu.

– Ur bero sanitarioa (ACS) ekoizteko eta igerilekuak klimatizatu eta berotzeko kolektore zapal estalkidun eguzki-instalazio termikoak: 270 euro arte, metro koa dro erabilgarri bakoitzeko; huts-hodidunak badira, 360

EVE la consideración de cuándo dos o más instalaciones comparten emplazamiento.

2.– Beneficiarios.

Podrán ser beneficiarios de las ayudas establecidas en la presente convocatoria las personas físicas con capacidad de obrar, personas jurídicas, instituciones sin ánimo de lucro, corporaciones locales, comunidades de propietarios y cualquiera otra asimilable a las anteriores, radicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, o que desarrollen actividad en esta Comunidad.

3.– Cuantía de la ayuda y criterios para su determinación.

Las ayudas son a fondo perdido, por un importe máximo del 40% del coste elegible.

Se considera coste elegible toda aquella inversión en inmovilizado material directamente atribuible a la instalación de aprovechamiento de energías renovables, necesaria para el funcionamiento de la misma y no justificable por el empleo de otras tecnologías no renovables; quedan excluidos gastos en obra civil, gastos financieros, tasas, permisos, gastos de gestión u otros de similar naturaleza; siendo en todo caso el criterio del EVE el que prevalecerá en caso de controversia.

Serán criterios para la concesión y cuantificación de las ayudas los siguientes en función de los porcentajes que se determinan:

– Innovación tecnológica	30%
– Singularidad de la aplicación	30%
– Interés social del proyecto	30%
– Otros factores equiparables	10%
Total	100%

Estos beneficios son compatibles con cualesquiera otras líneas de apoyo institucionales que puedan ser de aplicación a los proponentes, con la limitación en caso de acumulación de ayudas del 51% del coste elegible en caso de actividades con ánimo de lucro, y del 100% en el resto.

La cuantía de las ayudas podrá alcanzar hasta un máximo de 36.000 euros de ayuda para una sola instalación, y 60.000 euros para un mismo beneficiario. Dos sociedades serán consideradas como un mismo beneficiario bien cuando estén participadas en una cantidad igual o superior al 25% del capital por una misma persona física o jurídica, bien cuando una participe en la otra en una cantidad igual o superior al 25% del capital.

– Instalaciones solares térmicas con colectores planos con cubierta para producción de ACS, calefacción y calentamiento de piscinas: hasta 270 euros por metro cuadrado útil; hasta 360 euros por metro cuadrado

euro arte, metro koadro erabilgarri bakoitzeko; trinkoak badira, 210 euro arte, metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

– Sare elektrikotik bereizitako eguzki-instalazio fotovoltaikoak: 6 euro arte, watt piko (Wp) bakoitzeko.

– Sare elektrikoari konektatutako eguzki-instalazio fotovoltaikoak: 2,5 euro arte, watt piko (Wp) bakoitzeko.

– Aerosorgailuak, 2 kW arteko potentziadunak: 4 euro arte wateko (W); eta, gainerako kW-ak, 10 kW arteko gehienezko potentziara heldu arte: 1,50 euro watt (W) bakoitzeko.

– Mikrozentral hidroelektrikoak, 2 kW arteko potentziadunak: 6 euro arte, wateko (W); eta, gainerako kW-ak, 10 kW arteko gehienezko potentziara heldu arte: 1,50 euro watt (W) bakoitzeko.

– Biomasa ustiatzeko zentralak: 60 euro kW bakoitzeko.

4.– Kudeaketa eta prozedura.

Diru-laguntza onuradungaiak baino ezin dezake eskatu, eta onuraduna nor izan daiteken 2. paragrafoan dago adierazita.

Onuradungaien izenean, hirugarren batek aurkeztuta, bi eskabide edo gehiago aldi berean aurkezten baldin badira, eskabideak zenbakitu behar dira eta prozedurarako hurrenkera edo ordena kontuan hartuko da.

Eskabide-inprimakia eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiri guztiak Energiaren Euskal Erakunde (EEE) aurkeztu beharko dira, eta jarduera hasi aurretik eta programa indarrean dagoen bitartean aurkeztu ahal izango dira. Bestalde, programa indarrean egongo da 2005eko abenduaren 31 arte. Hona hemen aurkeztu behar diren agiriak:

a) Energiaren Euskal Erakundeari (EEE) zuzendutako idazki bat. Idazkian, I. eranskina eredu hartuta, eskatu beharko da 2005eko Energia Baliabide Berriztagarrien Ustiapenari buruzko programaren onuradun izan nahi dela.

b) Memoria tekniko-ekonomikoa. Memorian honakoak adierazi beharko dira:

- Instalazioaren deskripzioa;
- Instalazioaren eskema;
- Diseinuaren justifikazioa;
- Kalkuluen laburpena;
- Aurrekontu banakatua eta zehaztua.

c) Aurrekontua onartu dela dioen idazkiaren kopia sinatua eta obra-eskaera. Esakeran honakoak agertu beharko dira: enpresa esleipendunaren izena, zenbatekoa guztira eta zenbatekoa kontzeptuetan banakatuta.

d) Proiektu bererako beste erakunde batzuei eskatutako edo jasotako laguntzen gaineko aitortpena. Ez bazaio beste erakunderen bati laguntzarik eskatu, zinpe-

útil en el caso de tubos de vacío, o hasta 210 euros por metro cuadrado útil en el caso de compactos.

– Instalaciones solares fotovoltaicas aisladas de la red eléctrica: hasta 6 euros por vatio pico (Wp).

– Instalaciones solares fotovoltaicas conectadas a la red eléctrica: hasta 2,5 euros por vatio pico (Wp).

– Generadores eólicos hasta 2 kW: hasta 4 euros por vatio (W); los kW adicionales hasta llegar a 10 kW de potencia total: hasta 1,50 euros por vatio (W).

– Microcentrales hidroeléctricas hasta 2 kW: hasta 6 euros por vatio (W); los kW adicionales hasta llegar a 10 kW de potencia total: hasta 1,50 euros por vatio (W).

– Instalaciones de aprovechamiento de la biomasa: hasta 60 euros por kW.

4.– Gestión y procedimiento.

La ayuda será solicitada por quien ostente la condición de beneficiario, según lo dispuesto en el apartado 2.

Cuando dos o más solicitudes sean presentadas simultáneamente, en nombre de los beneficiarios, por un tercero, éstas deberán estar numeradas considerándose dicho orden a todos los efectos de la tramitación.

La instancia de solicitud y la documentación que debe acompañarla deberá presentarse completa en el EVE con anterioridad al comienzo de la actividad y dentro del plazo de vigencia del programa, que será hasta el 31 de diciembre de 2005, siendo la documentación a presentar la siguiente:

a) Escrito dirigido al Ente Vasco de la Energía (EVE) solicitando acogerse a los beneficios derivados del Programa de Aprovechamiento de Recursos Energéticos Renovables 2005, según modelo del anexo I.

b) Memoria técnico-económica que deberá incluir, como mínimo, lo siguiente:

- Descripción instalación;
- Esquema instalación;
- Justificación del diseño;
- Resumen de cálculos;
- Presupuesto desglosado detallado.

c) Copia firmada de la aceptación del presupuesto y petición de la obra en la cual se consignará nombre de la empresa adjudicataria, cuantía total y su desglose por conceptos.

d) Declaración de las ayudas relativas al mismo proyecto concedidas o solicitadas a otros Organismos. Si no se han pedido ayudas a otros Organismos, se adjun-

ko aitorten bat aurkeztu beharko da, eta honakoak adierazi beharko dira bertan: ez zaiola inongo erakunderi laguntzarik eskatu eta gerora laguntzaren bat jasoz gero, horren berri emateko konpromisoa hartzen dela.

e) Sinatzailearen NANren kopia.

f) Bankuaren izena eta kontu-zenbakia (20 digitu), I. eranskina eredu hartuta, diru-laguntza ordaindu ahal izateko. Laguntzaren onuradunak justifikatu beharko du kontuaren titularra dela.

g) Sarera konektatutako eguzki-instalazio fotovoltaikoak direnean, elektrizitatea banatzen duen konpainiaren komunikazioaren kopia. Bertan, egitasmoa gauzatzeko beharrezkoak diren sare-konexioaren baldintzak eta gunea azalduko dira.

h) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, honako hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- Sozietatearen eratze-eskrituraren kopia.
- Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren (IFZ) kopia.
- Sinatzailearen ahalordetze-eskrituraren kopia.

Instalazioak egin ahal izateko, instalazio horiei aplikatu beharreko erregelamenduak eta araudiak bete beharko dira eta instalazioen osagaiak homologatuta egon beharko dira. Eskumena duen organoak egin beharko du homologazioa.

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE), diru-laguntza emateko beharrezkotzat jotzen duen informazioa eta agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

5.– Ebazpena eta komunikazioa.

Energiaren Euskal Erakundearen zuzendari nagusiak gehienez 3 hilabeteko epea izango du, laguntza-eskabidea aurkezten denetik hasita, laguntza ebazteko eta eskatzaileei ebazpenak jakinarazteko.

Laguntza-eskabidea behar bezala ebaluatzeko behar den azken agiria EEEen jasotzen den egunean izango da eskabidearen sarrera-eguna. Izan ere, egun horretan emango zaio eskabideari egokituko zaion erregistro-zenbakia.

Behar bezala beteta ez dauden eskabideak erregistratu gabe egongo dira EEEen, eta ez zaie erregistro-zenbakirik emango agiri guztiak aurkeztu arte. Eskatzaileak eskabidea bazter utzi dezake. Eskabidea behar bezala betetzen ez bada hiru hilabeteko epean, EEEK ez du aurkeztutako agiriak gordetzeko betebeharririk, onuradunak eskabidearen izapideari uko egiten diola uler-tuko baitu.

Ebazpenean honakoak adieraziko dira: diru-laguntza jaso behar duen jardueraren xedea, diru-laguntzaren zenbatekoa eta interesgarritzat jotzen diren beste kontu batzuk; diru-laguntza ukatuz gero, zergatik ukatu den azalduko da.

tará una declaración jurada de no haber solicitado otras ayudas y compromiso expreso de comunicar cualquier otra ayuda que se obtenga posteriormente.

e) Copia del DNI del firmante.

f) Nombre de la entidad bancaria y n.º de cuenta, de la que el beneficiario habrá de justificar ser titular, en la cual se desea recibir el abono de la ayuda (20 dígitos), incluido en el anexo I

g) En el caso de instalaciones solares fotovoltaicas conectadas a red, copia de la comunicación por parte de la compañía distribuidora de electricidad del punto y condiciones técnicas de conexión a red necesarias para la realización del proyecto.

h) Además, cuando el solicitante sea persona jurídica, será necesario aportar:

- Copia de la escritura de constitución de la Sociedad;
- Copia del CIF;
- Copia de la escritura de apoderamiento del firmante;

Las instalaciones se realizarán cumpliendo los Reglamentos y Normativas que les sean aplicables, y sus componentes deberán poseer la correspondiente homologación por el organismo competente.

El EVE podrá recabar del solicitante la información y documentación complementaria que estime necesaria para la concesión de la ayuda.

5.– Resolución y comunicación.

En el plazo máximo de 3 meses a partir de la presentación de la solicitud de ayuda, el Director General del Ente Vasco de la Energía resolverá sobre la misma y comunicará esta resolución al solicitante.

Como fecha de entrada de la solicitud se considerará la de recepción en el EVE del último documento necesario para la correcta evaluación de la misma, momento en el cual se asignará al expediente el correspondiente número de registro.

Aquellas solicitudes incompletas permanecerán a la espera de la recepción en el EVE de los documentos que falten, sin obtener número de registro, pudiendo optar el solicitante por su retirada. Transcurridos tres meses sin que la solicitud haya sido completada, el EVE no tendrá obligación de conservar la documentación presentada, por entender que el beneficiario renuncia a su tramitación.

En la resolución se determinará el alcance de la acción objeto de la ayuda, el importe de la ayuda, aquellos otros aspectos juzgados de interés y, en su caso, los motivos de denegación.

Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 44.2.c artikulua dioenez, epe hori igarotzen bada eta interesatuak ez badu jakinarazpenik jaso, horrek esan nahiko du hark aurkeztutako eskabidea ezetsi egin dela.

Diru-laguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere helburua betetzen dela irizita, edo beste edozein erakunde publiko zein pribatuen laguntza edo diru-laguntza jasoz gero, diru-laguntza esleitzeko ebazpena aldatu egin ahal izango da.

Interesatuak gora jotzeko administrazio-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena egiten denetik kontatzen hasita.

6.– Onuradunaren betebeharrak.

Deialdi honen bitartez arautzen diren diru-laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Diru-laguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria jaso eta hamabost eguneko epean berariaz eta idatziz uko egiten ez badiu, onartu egin duela ulertuko da, deialdian zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoen eta gainarakeren arabera.

b) Diru-laguntza zertarako eman zaion, horretarako erabiltzea, salbu eta 5. paragrafoan baldintzen aldaketari buruz esaten dena aplikagarri bada.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren zereginetan dihardutela, deialdi honetako diru-laguntzei buruz eskatzen duten informazioa ematea.

d) Eguzki-instalazio termikoak direnean, baldin eta bilketa-azalera erabilgarria 40 m² baino handiagoa bada, energia neurtzeko sistemaren bat sartzea zirkuitu primarioan, eguzki-sistemak emandako energia kontabilizatzeko.

e) Eguzki-instalazio termikoak direnean, baldin eta bilketa-azalera erabilgarria 40 m² baino handiagoa bada, eta sarera konektatutako instalazio fotovoltaikoak direnean, urtearen buruan Energiaren Euskal Erakundeak jakinarazi beharko zaio zenbat energia ekoiztu den, III. eranskinean dagoen ereduaren arabera. Betebeharrak hori bost urteko epean errespetatu beharko da. Hain zuzen ere, deialdi honi gehitu zaion betebeharrak dena, 8. atalean azaltzen denez. Betebeharrak ez beteitzeak ebazpena indargabetzea ekar dezake eta jasotako diru-laguntza itzultzeko betebeharrak.

De conformidad con lo establecido en el artículo 44.2.c de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, si una vez transcurrido dicho plazo no hubiera sido notificada al interesado Resolución alguna, la solicitud correspondiente se entenderá desestimada.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la ayuda siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta y, en su caso, la obtención concurrente de otras ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de la ayuda.

Los interesados podrán interponer recurso administrativo de alzada en el plazo de un mes a partir de la notificación de la resolución ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

6.– Obligaciones del beneficiario.

Los beneficiarios de las ayudas reguladas en la presente convocatoria deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la ayuda concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la notificación de la concesión de la ayuda, el beneficiario no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada, tanto en su aspecto económico como en las demás condiciones recogidas en la resolución así como las de la convocatoria.

b) Utilizar la ayuda para el concreto destino para el que ha sido concedida, salvo que resulte de aplicación lo establecido en el apartado 5 relativo a la alteración de las condiciones.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las ayudas recibidas con cargo a esta convocatoria.

d) En instalaciones solares térmicas con una superficie útil de captación mayor de 40 m², incorporar un sistema de medición de energía, en su circuito primario, que contabilice la energía aportada por el sistema solar.

e) En instalaciones solares térmicas con una superficie útil de captación mayor de 40 m² y en instalaciones fotovoltaicas conectadas a red, comunicar al EVE, al finalizar el año, la producción energética obtenida, según el modelo del anexo III. Esta obligación se asume durante un periodo de 5 años, siendo éste uno de los requisitos establecidos dentro de esta convocatoria a los que hace alusión el apartado 8 de la misma, cuyo incumplimiento podrá dar lugar a la cancelación de la resolución y a la obligación de reintegrar la ayuda recibida.

f) Instalazioaren jabetza eta haren funtzionamendu egokian 5 urtez, gutxienez, edukitzea.

g) Onuradunak laguntzaren helburua diren instalazioa eta ekipoak besterenduko balitu, aurreko epea bete baino lehen, salmentaren kontratuan berariaz adierazi behar du inbertsioak 2005, Energia Baliabide Berriztagarrien Ustiapenaren Programatik jaso duela laguntza, eta erosleak konpromisoa hartzen du laguntza erabiliko duela beronen xedearen arabera, goraxeago aipatutako epea bete arte gutxienez. Edozein kasutan, besterentzearen berri eman behar dio EEEri.

Onuradunak onartzen du indarrean dauden araudi guztiak aintzat hartuko dituela proiektuaren garapenean, proiektuari aplikagarria diren hirigintza, teknika eta abarrei lotutako arautegiei dagokienez. EEEk ez du inolako erantzukizunik izango onuradunaren alde tik egin litezkeen haustetik edo ez betetzetik.

7.- Laguntzak ordaintzea.

Instalazioa amaitu eta martxan jartzen denetik hila beteko epea igaro ondoren egingo du egiaztapena EEEk, erabiltzaileari ondoen iruditzen zaionean. Behin instalazioa ikuskatu edo egiaztatu ondoren egingo da ordainketa, betiere aurkeztutako proiektuaren arabera egin dela egiaztatu eta gero.

Egiaztapena egin aurretik, II. eranskina eredutuz erabiltzaileari jakinarazi behar dio EEEri inbertsioa burutu dela, eta instalazioa behar bezala dabilela. Era berean, EEEri instalazioa ikuskatzeko eskaria egingo dio, idazkiarekin batera honako agiri hauek aurkeztuta:

a) Fakturaren edo fakturen kopia, inbertsioa burutu delako egiaztagarri.

b) Instalazioaren berme-egiaztagiriaren kopia (gutxienez, urtebeterako).

c) Instalazioaren mantentze-kontratuaren edo konpromisoaren kopia (gutxienez, urtebeterako).

d) Eskatutako edo jasotako beste diru-laguntza batzuei buruzko aitortpen eguneratua.

e) Foru-ogasunetan ordainketa guztiak eginda dituela justifikatzeko egiaztagiri eguneratua.

f) Onuraduna pertsona juridikoa bada, Gizarte Segurantzaren ordainketa guztiak eginda dituela justifikatzeko egiaztagiri eguneratua.

g) Sareari lotutako elektrizitate-sorkuntzako instalazioen kasuan, instalazioak probak gainditu dituela dioen buletinaren kopia bat. Buletina enpresa banatzaileari bidali behar zaio, sareari behin betiko lotzeko.

f) Mantener la instalación en propiedad y en correcto estado de funcionamiento durante un mínimo de 5 años.

g) En el caso de que, no habiéndose cumplido el plazo reseñado anteriormente, el beneficiario enajene las instalaciones y equipos objeto de la ayuda, hacer constar expresamente en el documento contractual de la venta que dicha inversión ha sido objeto del apoyo del programa Aprovechamiento de Recursos Energéticos Renovables 2005 y que el adquirente asume el compromiso de destinar los bienes al fin concreto por el que se concedió la ayuda, al menos, hasta el cumplimiento del plazo reseñado. En su caso, dicha enajenación deberá ser informada al EVE.

Queda asumido por el beneficiario que el proyecto que desarrolle se debe ajustar en todos los extremos a la normativa vigente, tanto técnica como urbanística o de cualquier otra naturaleza, que en relación al proyecto presentado le sea aplicable. El EVE no tendrá responsabilidad alguna de cualquier incumplimiento al respecto por parte del beneficiario.

7.- Abono de las ayudas.

Transcurrido un plazo de un mes desde la finalización y puesta en marcha de la instalación a satisfacción del usuario, el EVE visitará la instalación. El abono de la ayuda se efectuará tras la comprobación visual de la ejecución de la instalación conforme al proyecto presentado.

Previamente, utilizando el modelo del anexo II, el beneficiario comunicará al EVE la finalización de la ejecución de la inversión y correcto funcionamiento de la instalación, solicitando se proceda a la inspección de la instalación; adjuntando a dicho escrito los siguientes documentos:

a) Copia de la factura o facturas justificativas de la inversión realizada.

b) Copia del certificado de garantía de la instalación (mínimo un año).

c) Copia del contrato/compromiso de mantenimiento por un periodo mínimo de un año.

d) Declaración actualizada de otras ayudas solicitadas o recibidas.

e) Justificante actualizado de estar al corriente en los pagos a las Haciendas Forales.

f) Si el beneficiario es persona jurídica, certificación actualizada que justifique estar al corriente en los pagos a la Seguridad Social.

g) En caso de instalaciones de generación eléctrica conectadas a red, copia del boletín de superación de pruebas de la instalación que ha de remitirse a la empresa distribuidora para la conexión definitiva a red.

h) Hala badagokio, erakundeetatik jasotako edo emandako edozein laguntza motaren komunikazioen edo ebazpenen kopiak.

Ikuskapena, instalatzailea bertan delarik, 15 eguneko epean, gutxi gorabehera, egingo da.

Ikuskapena egin aurretik, EEEK instalazioa egiteko laguntza eman duela adierazten duen bereizgarri bat bidaliko dio onuradunari edo, hala badagokio, instalatzaileari. Bereizgarria agerian jarriko da instalazioan, ondo ikusteko moduan eta kendu gabe, EEEK ikuskapena egin baino lehen. Bisitaldian, instalazioaren mantentze- eta jarraibide-eskuliburua erakutsi beharko da. Erabiltzailearentzako eskuliburu honek bermatuko du instalazioa behar bezala funtzionatzeko behar duen ezagutza duela erabiltzaileak.

Onuradunak 2 urteko epea izango du, gehienez, diru-laguntzaren helburu diren jarduerak egiaztatzeko, laguntza esleitzeko ebazpena eman zenetik.

Dena dela, ordainketa egiten den unean, onuradunak ordainduta izan behar ditu zergak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

8.– Ez betetzeak eta diru itzultzeak.

Deialdi honetan ezarritako eskakizunak, aplikatu daitezkeen gainontzeko arauak edo diru-laguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezik, ez-betetze espedienteak ireki, eta diru-laguntzak ezeztatu egingo dira eta itzuli egin beharko dira, legezko korrituekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura emandako diru-laguntzen bermeei eta itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzeko indarrean dauden arauen arabera. Horrek ez du salbuesten bestelako zehapen eta lege-egintzetatik.

Ez-betetze espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak du.

9.– Azken xedapenak.

Lortutako emaitzen bilakaerari buruzko informazioa emateko konpromisoa hartuko dute onuradunek EEEK halakorik eskatuz gero.

Programa honen bidez laguntzen diren instalazioei egindako argazkien irudiak erabiltzeko eskubidea du EEEK.

Programa honetarako, 1.800.000 euro erabiliko dira, Energiaren Euskal Erakundearen aurrekontuetan berriaz ezarritako kredituaren arabera.

Diru-laguntza guztien artean ez da kopuru hori gairatuko, salbu eta, indarrean dauden legeen arabera, aurrekontuetan aldaketak onartzen badira; kasu horretan ere, ez da eguneratutako kopuru hori gairatuko.

h) Copia de las resoluciones o comunicaciones de otorgamiento de cualquier tipo de ayudas provenientes de cualesquiera líneas de apoyo institucionales, recibidas u otorgadas, si las hubiera.

La inspección se realizará, en presencia del instalador, en un plazo aproximado de 15 días.

Con carácter previo a la inspección, el EVE remitirá al beneficiario o, en su caso, al instalador, un distintivo indicativo de que la instalación ha recibido apoyo económico del EVE. Dicho distintivo deberá colocarse de modo permanente en un lugar visible de la instalación antes de la inspección de la misma por parte del EVE. Durante la visita, habrá de mostrarse el manual de instrucciones y mantenimiento de la instalación, manual que pertenecerá al usuario y asegurará al usuario el conocimiento necesario para una óptima utilización de la instalación.

El plazo máximo de acreditación por el beneficiario de las actuaciones objeto de ayuda será de 2 años a partir de la resolución de otorgamiento.

En todo caso, en el momento del pago el beneficiario deberá hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y de seguridad social.

8.– Incumplimientos y reintegros.

El incumplimiento de los requisitos establecidos en esta convocatoria y demás normas aplicables, así como las condiciones que, en su caso, se establezcan en la resolución de concesión, dará lugar, previo el oportuno expediente de incumplimiento, a la cancelación de la misma y a la obligación de reintegrar las ayudas y los intereses legales correspondientes, conforme a la normativa vigente por la que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin perjuicio de las acciones legales y sanciones que correspondan.

La incoación y resolución de los expedientes de incumplimiento corresponderán al Director General del Ente Vasco de la Energía.

9.– Disposiciones finales.

Los beneficiarios se comprometerán a informar, a petición del EVE, de la evolución de los resultados obtenidos.

El EVE se reserva el derecho de uso de las imágenes obtenidas de las instalaciones objeto de ayudas provenientes del presente programa.

Se destina a este programa un total de 1.800.000 euros según el correspondiente crédito establecido al efecto en los presupuestos del Ente Vasco de la Energía.

El volumen de ayudas total no superará dicho importe o el que resulte de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

Programa honen kontura diruz lagundutako jarduerak eta laguntzen zenbatekoak Energiaren Euskal Erakundearen urteko txostenean argitaratuko dira.

Oinarri honetan aipatzen ez diren gaietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan aipatutakoa aplikatuko da.

La relación de las actividades apoyadas con cargo al presente programa, así como sus importes será objeto de publicación en el correspondiente Informe Anual del Ente Vasco de la Energía.

En todo lo no previsto en la presente base, se atenderá a lo dispuesto en el Decreto legislativo 1/1997 de 11 de noviembre por el que se aprueba el Texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

I. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO ORRIA

Nik, jaunak/andreak, Energia Berriztagarriak ustiatzeko 2005eko programaren babesean, Energiaren Euskal Erakundeari diru-laguntza eskatzen diot, energia berriztagarriak ustiatzeko honako proiektu hau burutu ahal izateko.

ERABILTZAILERA IDENTIFIKATZEKO DATUAK			
Jabea /Erakundea:	NAN/IFK:		
Harremanetarako pertsona:	NAN:		
Helbidea:	Herria:	PK:	
L. Historikoa:	Telefonoa:	Faxa:	E-posta:

Honekin batera aurkezten diren agiriak:

- Memoria tekniko-ekonomikoa
- NANaren kopia
- Onartutako aurrekontuaren eta obra-eskaeraren kopia
- Beste diru-laguntza batzuen gaineko aitortpena
- Konexiorako gunearen eta baldintza teknikoen kopia (fotov. sarera)
- Kontu korrontearen titulartasuna egiaztatzen duen dokumentua
- Diru-laguntza jasotzeko kontu korrontea (20 digitu)
.....

(Eskatzailea pertsona juridikoa bada)

- Sozietatearen eratze-eskritturaren kopia
- IFKren kopia
- Sinatzailearen ahalordetze-eskritturaren kopia

INSTALAZIOAREN KOKAGUNEARI BURUZKO DATUAK			
Helbidea:	Herria:	PK:	
L. Historikoa:	Telefonoa:	Faxa:	E-posta:

Instalazioari buruzko deskribapena (instalazio-mota, potentzia edo energia jasotzeko azalera osoa, helburua):

.....

Inbertsioa, guztira (BEZ salbuetsia): euro.

Proiektu berbera burutzeko eskatutako beste diru-laguntza batzuen laburpena:

Erakundea	Eskaintako diru-laguntza	Jasotako diru-laguntza
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____

Eskatzailearen sinadura:

II. ERANSKINA

PROIEKTUAREN BURUTZAPEN-JAKINARAZPENA;
IKUSKAPENA EGITEKO ESKAERA ETA ORDAINKETA

Nik, jaunak/andreak (NAN), Energiaren Euskal Erakundeari jakinarazten diot honako proiektu hau erabat burutu dela: IR-..... zenbakia. Era berean, martxan hasita dagoela eta behar bezala dabilela jakinarazten diot, eta bereizgarria ere jarri dudala, instalazioak Energiaren Euskal Erakundearen diru-laguntza jaso duela adierazteko.

Horrenbestez, eskatzen dut instalazioa ikuskatzera etortzea eta proiektua burutzeko emandako diru-laguntza ordaintzea.

Horretarako, honako agiri hauek aurkezten ditut:

- Fakturaren edo fakturen kopia, instalazioa ordaindu delako egiaztagarri.
- Instalazioaren berme-egiaztagiriaren kopia (gutxienez, urtebeterako).
- Instalazioaren mantentze-kontratuaren edo konpromisoaren kopia (gutxienez, urtebeteko eperako).
- Foru-ogasunetan ordainketa guztiak eginda dituela justifikatzeko egiaztagiri eguneratua.
- Gizarte Segurantzaren ordainketa guztiak eginda dituela justifikatzeko egiaztagiri eguneratua (pertsonez bakarrik).
- Instalazioak probak gainditu dituela dioen buletinaren kopia (sareari lotutako elektrizitate-sorkuntzako instalazioetan bakarrik).
- Erakundeek emandako beste laguntza batzuen komunikazioen edo ebazpenen kopia (laguntzak jaso baldin badira).

Era berean, proiektu berbera burutzeko honako diru-laguntza hauek ere jaso ditudala aitortzen dut:

Erakundea	Eskainitako diru-laguntza	Jasotako diru-laguntza
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____

Sinadura

III. ERANSKINA

URTEAN EKOIZTUTAKO ENERGIARI BURUZKO JAKINARAZPENA

Nik, jaunak/andreak (NAN), hartutako betebeharra betez, 6. artikuluan – Onuradunaren betebeharrak – azaltzen denari jarraiki, IR -.....zk. duen proiektua bost urteko epean gauzatzeko EEEK emandako diru-laguntza onartu duenak, honako honen bidez jakinarazten dizut instalazioaren urteko energia-ekoizpena. Horretarako, urtearen amaieran kontagailuaren irakurketa helaraziko dizut.

Sarera konektatu eguzki-instalazio fotovoltaikoa		Eguzki-instalazio termikoa	
Kontagailuaren irakurketa	kWh	Kontagailuaren irakurketa	kcal
Irakurketaren eguna		Irakurketaren eguna	

Sinadura

ANEXO I

FORMULARIO DE SOLICITUD DE AYUDA ECONÓMICA

Yo, D./D.ª , acogiéndome al programa Aprovechamiento de Recursos Energéticos Renovables 2005, solicito al Ente Vasco de la Energía ayuda para la realización del siguiente proyecto de aprovechamiento de energías renovables.

DATOS DE IDENTIFICACIÓN DEL USUARIO			
Propietario/Organismo:	DNI/CIF:		
Persona de contacto:	DNI:		
Dirección:	Municipio:	CP:	
T. Histórico:	Teléfono:	Fax:	E-mail:

Documentación obligatoria que se aporta:

- Memoria técnico-económica
- Copia de DNI
- Copia de presupuesto aceptado y petición de obra
- Declaración de otras ayudas
- Copia del punto y cond. técnicas de conexión (fotov. a red)
- Documento acreditativo de titularidad de cuenta corriente
- Cuenta corriente en la que se desea recibir la ayuda (20 dígitos)

En caso de ser quien solicita persona jurídica:

- Copia de la escritura de constitución de la sociedad
- Copia del CIF
- Copia de la escritura de apoderamiento del firmante

DATOS DE EMPLAZAMIENTO DE LA INSTALACIÓN			
Dirección:	Municipio:	CP:	
T. Histórico:	Teléfono:	Fax:	E-mail:

Descripción de la instalación (tipo de instalación, potencia o superficie total de captación, finalidad):

.....

.....

.....

Inversión total (IVA excluido) : euros.

Resumen de otras ayudas solicitadas para el mismo proyecto:

Organismo	Ayuda otorgada	Ayuda recibida
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____

Firma del / de la solicitante:

ANEXO II

COMUNICACIÓN DE FINALIZACIÓN DE PROYECTO
Y SOLICITUD DE VISITA Y PAGO

D./Dña. con DNI comunico al EVE la finalización de la ejecución del proyecto n.º IR-..... así como su entrada en servicio y correcto funcionamiento, habiendo sido colocado el distintivo indicativo de que la instalación ha recibido apoyo económico del EVE.

Por ello, solicito proceda a la inspección del mismo y al pago de la ayuda otorgada para la realización de dicho proyecto.

Para ello adjunto los siguientes documentos:

- Copia de la factura o facturas justificantes del pago de la instalación.
- Copia del certificado de garantía de la instalación de un año (mínimo).
- Copia del contrato/compromiso de mantenimiento por un periodo mínimo de un año.
- Justificante actualizado de estar al corriente en los pagos a las Haciendas Forales.
- Justificante actualizado de estar al corriente en los pagos a la Seguridad Social (sólo personas jurídicas).
- Copia del boletín de superación de pruebas de la instalación (sólo instalaciones de generación eléctrica conectadas a red).
- Copia de resoluciones o comunicaciones de otorgamiento de otras ayudas institucionales (sólo si las hubiera).

Así mismo, declaro haber recibido las siguientes ayudas para el mismo proyecto:

Organismo	Ayuda otorgada	Ayuda recibida
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____

Firmado

ANEXO III

COMUNICACIÓN ANUAL DE LA PRODUCCIÓN ENERGÉTICA

D./Dña. con DNI en cumplimiento con la obligación asumida, según el artículo 6 – Obligaciones del beneficiario, por un periodo de cinco años al aceptar la ayuda otorgada por el EVE para la ejecución del proyecto n.º IR-....., por la presente le comunico la producción energética anual de la instalación facilitándole para ello la lectura del contador al finalizar el año.

Instalación solar fotovoltaica a red		Instalación solar térmica	
Lectura de contador	kWh	Lectura de contador	kcal
Fecha de lectura		Fecha de lectura	

Firmado